

PREKARIETATEA ETA EZKUTUKO DESBERDINTASUNA MERCEDESEN

Atzo adiskidetze-saio bat egin zen Arabako PRECon, Mercedesko ELA Atal Sindikalak sustaturiko bi gatazkaren ondorioz. Bi gatazka horien xedea behin-behineko langileen egoera konpontzea da, eta baita iazko abenduan sinaturiko hitzarmen kolektiboaren menpean gure enpresan sartu berri diren langileen egoera ere.

1.- SOLDATA-DISKRIMINAZIOA

➤ **SOLDATA-ESKALAK IGOTZEA**

Alde batetik, soldata-diferentzia berri bat da langileentzat, eta gure ustez diskriminaziozkoa eta arrazoigabea da. Orain dela zenbait urte, postu, maila edo kategoriaren barruan hiru tarte zeuden, eta hiru urtetan tarterik apalagoenetik gorenera igotzeko aukera zegoen. Horrek %4,7ko igoera zekarkion soldatari hiru urtetan, eta soldaten arteko alderik handiena %11,1ekoa zen.

1 TAULA.- Aldeak tartetik tartera 2007-2010 hitzarmenean

	Lehen urtean	Bigarren urtean	Hirugarren urtean	Aldian
Soldata-igoera/urtean	0	%7,3	%11.1	%4,7
Urteko igoera (€)	0	1.386,7	2.117,08	3.503,78
Soldata-galera/urtean	-%10	-%3,45	%100	-%4,48
Urteko galera (€)	-2.117,08	-730,38	0	-2.847,46

SOLDATA-PITZADURA %11,1 IZATETIK %29,5 IZATERA ALDATU DA POSTU BEREAN

Aurreko hitzarmenean (2011-2015), **hiru soldata-tarte horiek beste bi gehiagorekin ugaltu ziren, beherantz, bost izateraino, eta aurreko sarbide-soldata %15 beheratuz.** Hori dela-eta, are gehiago zabaltu zen soldata-pitzadura. **Azken hitzarmenean sarbide-soldata urtebete gehiagoz luzatzea jaso denez, oraingo soldata-pitzadura %29,5ekoa da;** horren ondorioz langile sartu berriek 5.967,5 €-ko galera izango dute lehen urtean, eta 18.445,42 € gutxieneko aldian 6 urte geroago goreneko tartera iritsi arte. Urtebete luzatzearen eragina **langile batzuek baino ez dute jasan beharko, diskriminaziozkoa da beraz, eta galerak %47,42 igoko dira** (12.477,92 €tik 18.445,42 €ra), goreneko mailara iritsi arte, oraingo hitzarmena sinatu aurreko egoeraren aldean. **HORIXE DA ELAK PRECORA ATZO ERAMAN ZITUEN PUNTUETAKO BAT,** diskriminazio hori kendu nahi diegu langile sartu berriei.

2 TAULA.- Aldeak tartetik tartera 2015-2020 hitzarmenean

	1 urtean	2 urtean	3 urtean	4 urtean	5 urtean	6 urtean	Aldian
Soldata-igoera urte bakoitzean	0	0	%12.5	%18.7	%24.9	%29,5	%13.28
Urteko igoera (€)	0	0	2.531,62	3.797,36	5.063,1	5.967,5	17.359,58
Soldata-galera/urtean	-%22,76	-%22,76	-%13,1	-%8,28	-%3,45	%100	-%11,72
Urteko galera (€)	-5.967,5	-5.967,5	-3.435,88	-2.170,14	-904,4	0	-18.445,42

➤ **7 URTETAN GORENEKO SOLDATA %14,75 IGO DA, ETA BEHERENEKOA IA IZOZTURIK MANTENDU (%0,51)**

Hurrengo taulan ere ikus daitekeenez, aurreko eta oraingo hitzarmena sinatu zirenetik sarbide-soldata %0,51 igo da 7 urtetan, soldatarik handiena, ordea, %14,75. **Soldata-pitzadura handitu da %120,9**, eta soldaten arteko diferentzia netoa %3150,75. Hori dela-eta, **2010ean soldaten arteko alderik handiena %13,4koa zen, eta orain %29,5ean dago, 6.074,88 euro inguru beherago. LAN BERDIN-BERDINA EGITEAREN TRUKE.**

Datu bitxi bat, 2016an sarbide-soldata 20.252,68 €-koa zen, 6 urte lehenagokoa baino txikiagoa; 2010ean 20.511,68 €-koa baitzen.

3 TAULA.- Soldata-pitzaduraren zabalkuntza, tarteen eredua aldatu zenetik (2010-2017).

	2010	2017	Zabalkuntza 7 urtetan	% zabalkuntza 7 urtetan
Sarbide-soldata	20511,68€	20617,24€	105,56€	%0,51
Gehieneko soldata	23261,00€	26692,12€	3431,12€	%14,75
Aldea	2750€	6074,88€	3324,88€	%120,90
%	%13,40	%29,50	%3150,75	

2.- 4 ORDUKO KONTRATUA ESKLUSIBOTASUNAREKIN

ELAk PRECOra eraman duen beste auzia, berriki sinaturiko hitzarmena da. Sinatzaileek **denbora partzialeko kontratazioa arautu dute, baina 24 orduko prestasunarekin**. Hitzarmenaren testuan ikus daitekeenez, egunean 4 orduko kontratua egin dezakete, eta 8 ordutan lanera behartu ahal izango dute edozein txandatan. Eta eguneko lanaldia, ordutegia eta txanda edozein unetan aldatu diezaiokete langileari, kontratu partziala aldatu beharrik izan gabe.

Malgutasuna dela-eta beste batzuetan salatu dugunez, Mercedesek “langileak kartan” nahi ditu; bada, orain gure enpresak eta haren sindikatuek are gehiago estutu nahi dute hori, eta “**langile prekarioak** kartan” nahi dituzte, “protestatzen ez baduzu, denbora osoko kontratua egingo dizugu” eskainiz.

ELAtik, azken urteotan egin izan dugun bezala, **gure esku dagoen guztia egingo dugu langile sartu berrien prekarizazioa ekiditeko, eta kontratu mugagabeak dituztenen baldintzak hobetzeko**. Bi gai horiez gain, iruzurrezko kontratazioa ere ez dugu ahantziko, zeren ELAren salaketagatik Lan Ikuskaritzak mugagabe bihurtzeko enpresari eskatu zizkion 550 kontratuetan **ez da osoki islatzen Mercedesen iruzurrezko kontratazioaren errealitate sistematikoa.**